GARRILLA-JULIO
7
Larunbata - Sabado

Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA

..bao'kua... ...	6,00	Irko.	Iru ile,
Bilbao'atazkua	7,50	"	"
Idazki-Itunmena	62,00	"	urtez
Atzarrijetakuak	100,00	"	"

Beldayen itunduba

XXII urtia • || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.732 zenbakija

Egunekua

Pirmin Deuna

Deun onen ixena, Euzkadi'n, ezaguna da. Ezagunena, baña, Nabafa'n, ixan be deun au ,nabaftafa zalako.

Nabaftafa, ta Iruña'ko Zaindarija, ta zaindaritza au dala-ta, Iruña'n, Zaindari -omenezko jai aundijak, gauf asiko dira.

Zaindaritza, au, iruñatafak, 1717'gafen urtetik onuzkua dabe.

Pirmin, done egiterano eldu ba-zan, be, guraso zingien semia ixan zan.

Ama, ofatiño, garaiz kistaf biguftu zan, eta Pirmin kistaf-bidian iminden arduratu.

Onesto eritxon jaupari baten ardurapian imiñi eban. Eta Pirmin mutil argija zalako, amazortzi urterako, jaupariituta aurkitzen zan.

Geruago, bafiz, gotzain egin zan, eta txonislaritzan gorengo malara eldu. Erijotzea, bafiz, Amiens'en aurkitu eban; eta bertan, ziñopa-burestuna irabazi.

卐 卐 卐

Ni, baña, gauf, ¿zek imiñi nau, emen Pirmin deunaren edestija idazten? Iruñatafai, ba, gauf, ardurarik gitxijen emongo dautsena, euren Zaindarija dan Pirmin deunaren edestija ixango da.

Pirmin deunaren edestijari begira baño, Taconera-ziaf zezen-zelairantz juango diran zezenai begira iñarduko diranak, geyago ixango dira, ba.

Iruña'n, gauf, soñu-otsa, abestijak eta zaratia baño eztana ixango da.

"Señorituak", baseritafen bruxakaz eta abaf jantziko dira, ta ardauz beteriko zatuak sorbaldetatik bera dindilizka dabezela ibili.

"Castillo-plazea" esaten dautsen zeya, bein gabeko amaikakezkero, zoro--jolastoki biguftuta geratuko da.

Iruña'n, Pirmin deunaren jayetan olako zorakerijak egiteko oturea, antxiñakua ei -da, bafiz.

Taconera'txaidetik aufera arin-arinka eruaten dabezan zezenai aufe-ziaf jafatubaz, estualdijetan lufera jausita zezenen adafetatik iges-egiteko dauken oturea be bai.

Batzuk, mustufez aufera jausiko dira, ta mustufak apuftuta geratu.

Beste batzuk, zezenen adafetara, ta euretatik ezkegita lotu. Mustufak apuftuko dabezala naiz, zezenen adafetan bixija itxiko dabela jakin, benetako nabaftaf jatofak, gauf, zezen-jai ofetara eldu barik eztira geratuko, jai oneik daben efikoitasunik berezijena, antxe zezen-aftian galdu -gordian ibiltia ei-da-ta.

Permin deunaren jayetan, Iruña'n, urte baten ixan naz. Eta berian, bai, gauza askori begiratu be.

Zezenketeak eta jolas gangafak ez-eze, abere-azoka edefak be egiten dira, Iruña'n.

Idi, bei, zekof, zaldi, ta mandako edefik asko ikusi nebazan nik, beintzat.

Eta bertako sal-erosketetan, bai euzkeldun mordo galantak be.

Gixon morosko areik alan euzkeraz mintzatzen ikustiak, bijotza alai-alai nebala, eurekanuntz eruaten ninduban, eta eurekin izketan imiñi.

Eta iñoz alkafen ezaupiderik ixan ezgebanak ixan afen, geure mintzoerea bide zala, etxe baten jayuak ixan bai-gintzan anatuta geratzen gintzan.

Jayoteritik urunian, eta batez be Iruña'n lez gaztelerea nagusi dan urijetan euzkeldunak anai-antzo alkaf besafkatuten imindeko, euzkeraz mintzatzia lakorik ezebe eztago, ba.

Bafiro be ni, Pirmin deunaren jayetan Iruña'ra juan biafian aufkituko ba'nitz, "Castillo-Zeya,,'n baño abere - azokean ibiltaldi geitxubago egingo neuke, lenengo azokean baño bigafenian, euzkel-usain geyago idoroko neukelako.

Ni, Iruña'n ixan nintzanetik ona, ¿zenbat urte? Ez naz ondo gomutetan. Nik gomuten dodazanak onixek dira: "Castillo-Plazan" baseritaf jantziriko "señorito"-gangaf askotxu ikusi nebazala; abere zeyan, nabaftaf euzkeldun jatof askotxugaz mintzatu nintzala, ta orain Iruña'k daukon "zezen--plaza' bafija ordubantxe lenengoz zabaldu zala.

¿Zezenketa edefak ixan ziran? Eztakit, ezta "toriadore" nortzuk ixan ziran be, Belmonte ixan ete-zanekua entzun ete-neban nago baña.

Zezenketa autuok txafak ala onak ixan ziran eta abaf, buruban eukiteko, eztira, ba, oneik, euzkotafon gauzak, atzefitafen zentzungekerijak baño.

Gauf Pirmin deunaren eguna da, Iruña'ra notiñak-notin eruango dauzan doniaren eguna.

Pirmin deunak, gauf Iruña'ra, notin asko eruango dauz. ¿Baña zenbatek bera ikeftu ta guftu...?

Endorien batzarra

Txalogafija benetan arañegungo alkatien batzafa, ta eurak erakutsi eben etxe -zaletasuna.

Endoriok, irakufle, Bilbao'n batu ziran, eta Madrid'ko gixonak, kanpoko gixonak etxekuai egin gura dautsiezan kaltiak deuseztuteko batu be.

Euzkotafak, itoko dabezan lokafija iduneraño elduten etxaken bitaftian, Albontsa, Karla naiz Peru ta Marija'gaz jolasketan ibiliko ba-dira be, iduneko lokafija estuten asten yakenian, Albontsa'ri "kuku" egiten dakije; Karla'ri, "miku", ta Peru ta Marija'ri "aguf" esan, eta iduneko lokafija nasatuteko, Jel-bafutiko baberantz zuzenduten.

Etxeko autubak, geure-geuriak diran gauzak atonduteko Jel-bafutijan baño leku egokijagorik, ¿nun idoroteko...?

URIBITAFTE'TAF IBON.

Euzkotar umien aldez

España'tar ikastola eta Euzko-Ikastola

I

"Gizadia arnas estuaz, zozoa bezela dabil burua iluntzen dion kereiza ufatu nairik, eta Moises befi batek bezela, ur garbia darion arkaitza bilatu nai du."

Agustin Lanuza.

Gipuzkoa'ko Normal Ikastetxean ikasten nenbilen oraindik, nere bafuan oso lofatz sakona egin ziran gauza bat irakufi nuanean.

Irakufgai au ipuin bat izan zan, España'ko ipuin bat, eta gañera España'ko ikastolatzaz idatzia.

Ipuiña auxe zan. Castilla'ko efi sostof, txiro bateko etxe arlote baten aufian txefi bat iltzen ari ziran, eta onelako lanetan izan oi dan bezela, efiko ume gustiak an zeuden ikusgai ankef areri begira.

Txefi gaxoak, ¡jakiña ba! azkenetan zebilen da alegiñez bere burua eriotzatik gaizkatzeafen, ostikada batzuek ematen zituan eta kufinkada lafiak.

Orain arte ez du ipuiñak nor bere bafuan alako inpresio aundirik egiteko gauzik. Ez, baña orain dator neri iñoiz aztuko ez zaidan besterañokoa egin zirana.

Onelako batean, txefiari begira zegoan mutiltxo batek dirautso bene-benetan txefiari: —Eta ofegaitik egiten dek ofenbeste kufinka? Nik bezela, egunero ikastolara juan biafko ba'eu ez zekiat ba zer egingo euken.

Lenagotik ere Gipuzkoa'ko Normal Ikastetxeko irakaslari batek askotan esaten zizkigun España aldeko ikastolatzaz gauza itzal eta itunak.

Bein esan zigun efi batean berak ikusi zuala ikastolea ildegiko ormari eantzita, leyo bakaf batekoa, eta uste detanez bera ildegira begira edo.

Orain ziñistuko dezute, irakufleok, zenbaterañoko afada egingo ziran ipuin ofek, ipuiña zan afen, irakufi nuanean.

Geroago irakufi nuan, eta zuek ere irakufiko zenduten noski, Trueba'taf Andoni jaunak bere ikastolatzaz idatzitako beste ipuin bat.

Ez det gogoan, ez ipuiñaren izenik, ez beste zertzelada askorik, baña bai gauzarik nagusiena.

Trueba'k ipuin ofetan dio, bera txikitan ibilitako ikastolea, Sopuerta'ko Udalak bota egin zuala, eta bera egon zan urubean ituri beri bat iragi.

Eta onera eltzean, onela dio Trueba'taf Andoni jaunak: —Nik ez dakit, gure ikastola izan zan lekuan egin zan ituri befira Udalak ura eraman beafa zelan izan zuan.

An, leku aftan, guk umetan afpegian bera gure begietatik ixuri giñuzen malkoak, ituri edef bat sortzeko naikoa ta geyegi ere bai ziran da.

Ipuin ofetan bertan uste det Trueba jaunak edestutzen duala bere maixuak beste ikastola bateko ikaslariakin izan zuan alkaf-izketa era onetara:

—Zuk ezin zeinke ezer ere erakutsi, gizona, umerik jo ere ez dezu egiten da.

—Jo ez? Bai, gizona, bai, Joko ez ditut ba?

—Zaude ixilik. Nai al dezu apostu egin dezagun ez dutela zure ikastolatik, neretik bezela, mutilak euren bizitza guztirako markatuta erteten?

—Ara ba, egia esan, ori geyegitxo ete dan nago.

—Zer geyegitxo ta zer koplatxo gero! Zu, eztia bera baño bigunagoa ta gozoagoa zera ta euliak ere jan egiten zaituzte bada ta.

Ara emen España'taf muetako ikastola bi.

Eta ez det gogoratu nai Campion Jaunak egindako "Blancos y Negros,,'en irakuften dan Martintxo umezurtz mutiltxoaren eriotz ikaragafia.

Berez gaxoa erkiña ta osasun gabea izanik, euzkeraz ikastolan itz egin zualako beste gabe bere irakasleak eman zizkion zartada gogofen ondorenagaitik, euzkerea ezeztuaz "Amama, euzkeraz ez!" "Amama, euzkeraz ez!" esanaz, bere amonaren besoetan il zan mutiltxo napaf euzkelduna.

Gauf egunean, beste gauza danak bezela españataf irakasleak ere auferantz egin dute ta, ez degu Euzkadi'ko ikastoletan Trueba'taf Andoni'k eta Campion jaunak azaltzen dizkiguten bezelako irakasle ankef eta efaigaberik.

Gauf egunean ez euzkeraz itz egitiagaitik ez beste ezer gaitik ez dira gure umetxoak ofelako gogofkeriaz aftuak izaten ikastoletan.

Baña gure umeak gauf bertan ere bai dute ikastolan zergaitik negaf egin, bai dituzte ikastolara juateko gogoa kentzeko aínbeste zegaiti, ufengo idaztian J. L. azalduko detan bezela.

AŔITOKIETA.

Errijetatik

APATAMONASTERIO

IGANDEAN, EUZKO - JAI ANDIJAK. Ila onen 8'gafenian, Durango-efbafutiko mendigoxaliak eralduta, Apatamonasterio'ko efi politean begiko euzko -jayak ospatuko dira egitarau oni buruz:

9'etan.—Mendigoxale-taldiak abesturiko Meza-Nagusija. Gero elexateko aufeskuba ta ezpatadantzea.

12'jetan.—Euzko-jokubak: pelotea, soka -tiratzaliak, txorokil-batzaliak eta abaf.

1'etan.—Landan bazkarija.

3'etan.—Durango, Yufeta eta Elofio'ko ezpatadantzari eta gorularijak.

4'etan.—Abeftzale-itzaldijak eta bertsolarijak. Itzaldijak-eta amaturikan euzko -efomerija: txistularijak eta Mañaria'ko dultzañarijak ixango dira.

¡Eup abeftzaliak! ¡Igandean danok Apatamonasterio'ra!

MENDEXA

JAYOTZA.—Gure lagun ta efi onetako epaikari dan Laka'taf Luki ta bere emastiak ixan dabe alaba bafija. Ugutzaldijan euzkel-ixen begikua ezafi dautse, Josune daba, umetxubaren ixena. Ata-ama bitxijak ixan ziran gure lagun ta abeftzale zintzo diran Agife'taf Soter U. B. B. txindizaña eta Agife'taf Efupeme, ema kumia. Zorijon bijotzetikoenak gustijol.

IGANDIAN SUKAŔIETA'N.—Orain dala ila pare bat, be, arazo onetzaz idatzi neban. Orduban niñuan, ganora geyago aftuten ezpagenduban, ezkiñala Sukafieta'ra elduko, baña orainguan, urian, elduko gara. Igandian juango gara, lenengoz, Mendexa'ko abeftzaliak geure irakaslia ixan zan Sabin andijaren ilobija ikeftutera ta bertan otoi-egitera.. Goxeko saspiretako mezea entzungo dogu Mendexa'n berton eta zortzirak inguruban urtengo gara. Goxian goiz elduko gara Sukafieta'ra, Gernika'n be egotalditxuren bat egin-ostian. Ango zeregiñak eginda, Txatxafamendi'n bazkalduko gara. Kopia edo akeita aftzen Bermeo'ratuko gara. Ostian Algorta ta abaf ikusi biaf doguz. of Bizkai'ko efitxurik txukunenak zelakuak diran, be, jakin daigun.

Afatsean, ostera, Bilbao'ko Sabin-Etxia eta Euzko-Gastedija, be, ikeftuko doguz. Iganderako pozik gagoz, benetan. Egunik edefena pasau biaf dogu geure abefi mate onen aintza abesturik.

ABENDEŔI.

DEYA

Forua, Busturia, Sukafieta, Kortezubi, Gautegiz - Afteaga, Afatzua Mendata, Axangiz, Muxika, Morga, Arbazegi-Gefikaitz, Luno eta beste albo-efi guztietako Emakume Abeftzale-Batza lendakari edo lendakari - ordeko dei-egiten yake erdu daitezala Gernikaf Euzko-Batzokira, datofen astelenian, afatsaldeko bostetan, gafantzi andiko Batzaf bat egin daigun.

Gernika'ko E. A. B., ordezkariak.

ZARAUZ

ETXE BEŔIA.—Jon deunaren aufegunean zabaldu ziran Euzko-Etxea ta Emakume Abeftzale Batza'rentzat "Efi-Aldez,,'ek gertu dituan areto edefen ateak. Baita "Babes Bar" ere, auferapen guztiekin apaindua.

Orain afte zintzo erantzun dute abeftzaleak, eta onela jafaitzia nai dezala Jainkoak. Euzko-Etxea'ko bazkide-zefenda ere goruntz dijua.

Ain beafekoa degun antzokia egiten laistef asiko dira, etxe befiaren baratza edefean.

Z.

ERANDIO-GOIKUA

Euzko - Batzokija'ren zabalgundia eta Emakume Abeftzale-Batza, Mendigoxale ta Batzoki'ko ikufiñen onespena.

Egitaraba:

7'gn. egunean.—Afatsaldeko saspiretan, txistularijen biribilketea.

Zortzirak eta erdijetan, Batzokiko aretuan itzaldi abefkoya egingo dau izlari bikaña dan "Kurloya" jaunak. Ostian, Erandio-Goikua'ko antzezlarijak antzeztuko dabe antzefki edef bat.

8'gn. egunean.—Goxeko seirak eta erdijetan, egunaren asikerea adiraziko dabe txistularijak biribilketea alai bategaz.

Saspirak eta erdijetan, Jaupa eta jaunaftzia.

Bederatzijak eta erdijetan, Ikufiñekaz etofiko diran Emakume, Mendigoxale, Batzoki eta Euzko-Gastedijen aferea.

Amafetan, Emakume Abeftzale-Batza, Mendigoxale "Danok Ekin" eta Batzoki 'ko ikufiñen onespena. Beriala jaupa nagosi abestuba ixango da efiko eftxadonean, bertako abeslari, Bilbao'ko Euzko -Gastedi'kuakin batera jauparik edefena abestuko dabelarik.

Amaikak eta erdijetan, "Itxafkundia" abestuten dala ikufiñak goratuko dira. Ostian, Batzokiko aretoen onespena eta Josu-Bijotz Deuna'ren Jaureskundia Emakume Abeftzale-Batza'ko aretuan.

Amabijetan, Uriko Poxpoliñak euren dantzaketak egingo dabez. Eleiz-urijetako aufekua, uriko agintarijak egingo dabe.

Ordubatetan, Otoruntza nagosija.

Ordubijak eta erdijetan, Euzko-Langile -Alkaftasunaren Erespatza aferea egingo yako.

Iruretan, ezpatadantza erakusteka gurena.

Lauretan, Goiko-Landa deritxon zelai zabalean, abotsa edatuteko diran tramankufuz, itzaldi aberkoyak ixango dira izlari oneikaz:

Zabala'taf Josu.

Afegi'ren Zubia'taf Aintzar

Agife'taf Joseba Andoni.

Itzaldi-ostian euzko - jolasaldi ede... Euzko-Langilen erespatzagaz eta t... larijakaz amayaren biribilketa alaya.

Uafa.—Otoruntz angosijan ixan ... dabenak aftu begiez txantela Bilbao... Euzko-Gastedija'n, Sondika'n, Era... -Bekua'n, Erandio-Goikua'n, Derio'n, Za... mudio'n, Luxua'n. Bakotxa 7 lauf... ixango da, eta ilaren seigafena baño ... nago jaso biafko dira.

GALDAKANO

ZAMUDIO'N.—Igazi zan Igandian Za... mudio'n ixan ziran jai abefkoyetan ... dakanotaf asko ixan ziran. Zorijonak Za... mudio'ko abeftzale gustijai.

JAYOTZA.—Lengo baten alabatxu ... euki eben Mota'taf Bitof eta Altuna'... Kelestiñe senaf-emazte abeftzaliak. Za... tan esan berez-ez euzkel-ixena imi... dautsela.

Yugero'taf Joseba eta emaztiak ... -mutiko bikotxa euki dabe. Tamalez ... be eztautse euzkel-ixenik imiñi.

GUMUZIO'KO GASTETXUBAL... Artezkarijak erabagi dabe ezpatadantz... -aldratxu bat eratutia, euzko-jayak e... teko.

Ofetarako dei - degijegu gastetxub... etofi dadixan batzokira.

AUZO-JAYAK.—Igandian Arteta (S... Antolin Txikefa) auzunian ixango do... auzo-jayak. Euzko-usaindunak egin dab... efiko txistulari, ezpatadantzari ta ... gauza askogaz.

EZKONTZA. — Larunbatean ezkon... ko dira Bekea auzonian Bastefetxea'... Emiliane neskatil abeftzalia bediataf ... te bategaz.

BASAKIŔA.

ARRASATE

MUSAKOLA'N EUZKO-BATZOKI... Une ontantxe eskuratu zaigu Musakola'... Batzokiaren askundeko egitaraua.

Euzkera afgi ta txukunean egiten ... tu dira gure Musakola'n gasteak, eta ... ere bai.

Urte bete itxoiten egon dira Bat... onen askunde jayak egiteko, bañan ... ten danez il onen 15'ean, jai edef ... abefkoyakin izango da aitatu degun B... tzoki onen askundea.

Aspaldi nabaitu genuan Musakola'... gasteak aufez aufe zebiltzala abefi-la... tan eta aufki ikusiko degu, euren ... ta naigabeak alpefik eztirala izan. Ber... abeftzaletasunaren gafak Musakola'... biotz bafenak lotu ditu. ¡Badezute, Ar... sate'ko beste auzook zer ikasi auzo ab... tzale onengandik! Bañan... auzoak ba... fik? ez diranak ere...

Gaurkoz aski degu ta beste egune... laburkiro jafaituko degu, jai onetaz ... bait idazten, egitaraua azalduaz.

GOTZON.

卐 卐 卐

KEPA DEUNAREN EGUNA.—Sa... Juanak ez dira oraindik bukatu, Apostol... nagusiaren jai-eguna ere efiko Zaindari... aren jai-ondorena bezela artu oi da-ta. Meza nagusitan don Leonardo'k egin ... itzaldi egokia.

Zezen-plaza befian txarlotada edo da... koa egon zan afatsaldean ufengo igan... dean; naikoa pafe eragin zuten torero... bafegafiok. Gero, Biteri-enparantzan so... ñua ta dantza amaika afte.

ONDO-EZIK.—Bat-bateko gaitzak j... ta ondo ezik dago gure ikastolako mut... kotxo Orobengoa'taf Efoman'en aitajaun... Egubakoitzean Eleizakoak aftu zitua... Bereala sendatzea opa diogu.

EUSKAL-IZENA. — Bilaf'taf Basil... 'nera ekafi duten aingerutxoari Mire... Itziar Andone euskal-izen politak jaf... dizkiote. Zorionak.

ERIOTZAK.—Eguenean, bazkal-ondo... ren biaoa egiteko asmoan joan beste a... kotan bezela automobilen garajera ta be... tan ilda arkitu zuten Agife'taf Luis jau... na. (Goyan bego).

Asteaftean, Muzibar baseŕian il da Pe... dro Etxabe, gure ikastolako Joxe Bixen... te'en aitajauna, Santa Cruz apaizareki... gudatean ibilia zan Jaungoikoa ta Le... -Zafen alde. Jaungoikoak emango dio be... re saria Pedro artzai prestuari. (Goyan bego).

Datofen aste arte Jaungoikoak gure b... dau.

IKASLE.

¡Tolosa'n zer...

Gogoratzen, irakufle, aspaldiko bate... entzun zenuela Abefi-Etxea bat Tolosa... bazala?

Gogoratzen ere Abefi - Etxea ofe... egindako Euzko - Alderdiaren befitze... afezkerozko ainbat bilera orokof?

Ta alaz ere oraindik Tolosa'ko ab... tzaleok emen jai abefkoi bat ikusteko ... ririk ez degu izan.

Iru urte abetan aspertzeke efiz efi ... li ondoren iritxi da gurearen garaya. Il... ren 15'an aldun jaunei omenaldi bat ... keñiko diegu jai abefkoi bat bide dala. E. A. Batzako ikufin onespena ere eg... berean izango da.

Abeftzaletasuna ain txertakaitza dan ... onetarako guk besteri eskeñi diegun ... guntza guri ere eskeñiko al digute. O... indik Tolosa'n ezagutu ez dan erako ... bat izatea nai genuke abeftzaleona.

Baña gure esku ez egon, abeftzale ... zien esku baizik.

Gertu ba ikufin ta guzti emakume, ... tzoki ta abaf 15'erako.

Bene benetan diotzuet Abefiaren ... berexi bat dala Tolosa'rako au.

Ufengokoetan egitaraua ...ki.

NI...

Zortzitik - Zortzirat

AROA.—Afas euri chorta baten behartuak ginen. Behar gofituak ere ba, han hemenka. Uste gabean etofi zauku Ekainaren azken egunetan. Segurki, gehichago har ginezake, bainan dena ere on, eta eskefak Jainko on eta amultsuari...

BI ITHO MIAŔITZEN.—Bortz adich kide mainhatzen ari ziren, elgafi lotuak. Ur-jauzte batek ereman ditu bertzak. Berehala oharturik, bilha joan zaizkote eta ateratu dituzte. Ondikotz, bi emazte gazte jada ithoak ziran. Etziran haatik Eskualdunak ez bat eta ez bertzeak.

INTZEGARAY. Hemen gaindi dabiltzan, edo hobeki efaiteko, hemen gaindi beren bizia pifipitaren puntan irabazi nahiz dabiltzanetan, Eskualdun guti da. Etzauku beraz batera gaizki, igandean eta astelehenean Baionan eta Pauex baitziren zoin-lehenkak, bigetan Eskualdun bat ozori aintzintzea: Intzegaray. Bezkoiztafa da... eta erdara baino hobaki daki Eskuara.

DOHAKABE BAT.—Hogoita zenbait urtetako neskatcha batek zuhaitz batean bere burua urkatu du. Lastef ohartu zaizko etchekoak, bainan bi mirikuek ez dute nihundik berebaitarazten ahal izan. Dohakabea zerk hortaratu othe du?

PILOTARIAK. — Etzauzku lo egon hemen gaindi pilotariak egun hautan: alabainan jaiak ziren Maulen, Hazpafnen, Afangoitzen, Donianen... eta ez dakigu nun! Saleguy gipuzkoaf ttipia hirur egunaz lefoan arizan da hoberen-hoberenen aurka, eta hiruetan irabazi. Oi, ongi ari nahi duenean Saleguy hofek! Ejeboteko partidak ere hasi dire Oriotaf, Bilabonar, Doniandar, Sarataf, Donapaleotaf eta Hazpandnfen aftean. Uda huntako phazka badugu orai. Hobe!

BEŔI ONAK.—Baionako Jaun apezpikuak bere kargua utzi behar izan zuen, eriz. Geroztik Baionan zagon oraino, ez baitzitaken mugi. Hobekichagoturik, egun hautan bere sor-lekurat joan da. Hobeki da ere, hainitz hobeki, aita Lhande, jesuista. Zalgizeko aireak sendatuko du, miriku handi batzuen ustearen arabera. Atsegin lukete segurki Eskualdun guziak.

EGUN HAUTAN GERTATUA. — Zenbait aldiz guti eta afas guti aski da hiltzeko. Bokaleko hiruz haur ttipiren ama batek esne chorta bat ichuririk, besoa guti edo aski egosi da. Ez du egosidura behar den bezala aftatu... eta mina gaichtaturik, hil da. Edef da minari gogof egiten, ba... bainan edefago artatzea.

PILOTAREN ASTEA.—Aurten, hemen gaindi "Pilotaren Asten" deitzen ditugun jaiak itsus hegi horta neginen dire Buruilaren lehen igandetik bigafenerat. Azkainen hasiko dire Donianen bururatzeko. Azken eguna guziz edefa izanen da, bere eskual-phesta choragafiekin. Eskualdunak, ongi gogoan har zazue beraz oraitik Burnilaren zortzia...

LANA ETA LANGILEAK.— Miafitzen lanik gabe dire 382 langile, 251 Baionan, 219 Angelun, 211 Bokalen... eta ez du iduri behin-behin lanik atchemanen dutela. Hanbat gaichto! Sos eskasak gosea ondotik, eta goseak... nork daki zer?

ESKUAL-LANAK. — Bethi aintzinat doa, Lafitte eta Aranart jaun aphezeri esker, Aita Lhandek hasi hiztegia. Seigafen zathia agertu dute, "kafo,,'tik "mafa,,'rainoko hitzekin. Orobat egun hautan agertuko du "Gazteen Almanaka" hemen gaindiko idazle trebeenen lan politekin. Ongi ethofi! Ez diote, alabainan, onik baizik egiten ahal haur eta gazteeri.

HAUR PRODIGOA.

Academia de dibujo
TXIKI
Peñaflorida. 12 - Donostia

FULY Gerrikuak. - Donostia

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

Fábrica de escopetas finas de caza. Eizara'ko suizkilu berezijen olea

Agirre y Bastida
EIBAR. — GIPUZKOA

Curie emakumia

卐 卐

Ludijan ixan dan emakumerik jakintsubena il da. Ilotz ofen onduan, itzik gogafijenak entzuten dira. Sklodow aska emakumia France'ra eldu zanian gauza andirik etzan. Polska'tik etofan, zapalduta eguan abefitik.

Matematiketan eta pisikan oidalako gurendak loftu euzan eta oso txiro bixi zan lateratafen auzunia deritxon Paris'ko baztef baten. Lippman jaunagaz, batera, lan -dagi. Olako afatsalde batez idazki auxe jaso eban: Erdu geure etxera, afatsaldion Pierrer Curie, be, ementxe ixango dogu-ta.

Afatsalde aretan ezkontza bat softu zan Gero Madame Curie ixango zanaren itzak Ixututa geratu nintzan gixon aren begijak ikustian. Leunkiro mintzatuten zan. Beriala geure arimak alkaftu ziran.

Ogeta amabots urte eukozan egun aretan Curie jakintsubak eta jakintza-barna entzutetsuba zan. Amaf urte lenago "Eguneroko" idazki bat argitaldu eban eta itz onexek irafi euzan: Emakumiak mafien dabe bixitza. Genijo edo buru-argi diran emakumiak gitxi be gitxi dira. Emakumiakaz gudea baño eztaukogu.

Baña buru-argi gitxi baziran, bat aurkitu eban. Curie'ren emastia zan Jakintza -amets batek alkaftu euzan eta ordutik aufera alkafekin lan gustijak egin ebezan. 1897'gn. urtian alabatxu bat jayo yaken. Emaztiak ordu geyago pasaten dauz laboratorijoetan etxian baño. Radijotzaz lanak darabiltz. Ordurako radijo -gauzak susmetan ziran.

Sekulan lan edefagorik etzan egingo. Pierre Curie eta emaztiak egunak eta egunak igazi ebezan radioaren bila. Azkenian "paladium" eta "radium" ludijari erakutsi eutsezan.

Deskubrimientu onegaz ludiko osakal -bidiak zabaldu ziran. Orduz gero mila auferapen egin dira.

1905'kn. Pierre Curie jauna Sorbona'ko irakasle ixentau eben. Lanen arteskari, aren emaztia. Nobel sarija emon eutsen eta bijak auxe erantzun eben: Ofen besterik eztogu gura.

Andik lastef gufdibil zaf batek zapaldu eban Curie jauna. Gufdibil zaf at sekulan egin ezpazan, obe. Txifi-azpijan il zan gizon jakintsua. Lengo auxe idatzi eban arek: Jazoten dana jazo dedila, eta geu bijotarik bat geratuko bai'litz gogo-bako soña legez, be, aufera ekin biaf-ixango da

Eta madame Curie'k aufera ekin eutsen lanoi. Sorbona'ko irakasleme ixantau eben. Europa'ko gudu-nagosi-aldina amaikatxu lan edef egin ebazan. Asmakixun bafijak atera euzan eta bigafenez Nobel sarija emon eutsen. Bera lagun dala zabaldu ziran Radium-Iinstitutua. Paris'en eta Varsovia'n bere Curie emakumiak oidalako ikastetxiak irigi euzan.

Baña ata-amak bakafik eztira. Alaba bi euki ebezan eta bata ereslari gorengoetarikua da. Bestia, ostera jakintza-gayetan entzutetsuba.

Europa osuan ixan diran sendijetatik matekofena auxe. Ludijak zof andija dautso Curie abixenari. Bego Goyan Curie emakumia. Polskafak eta France'tafak afo egon daiteke?

:-: Urretxindorra :-:

Gastetxubentzako antzeztija, atal bakafduna. Itufalde eta Suit'en "Efotazuri'ko Ufetxindofa,,'ri buruz Sota'taf Imanol'ak efderaz egiña ta Altuna'taf Joseba'k euzkeralduba.

Saneufijak:

"Euzkerea,,'ren afpidedunai (azkenengo txartela erakutsirik)	1,00
Beste erosliai	1,50
"Euzkerea,,'ren afpidedunak diran Bazkunai, 10 ijeki gitxijenez erosizkero	0,75

Euzko-Gastedija'n salgai.

Aberrija

卐 卐

Patria es amor, es entusiasmo, es gloria
es el aliento de la vida humana.
La constante visión de la memoria,
el sueño de la noche y de la mañana.

J. M. Gutiérrez,

amerikafa.

Nire bijotzak ludijon daukan
gauzarik mate laztanena
lero bixijaz matatzen dodan
lorarik txukun edefena,
gure asabak itxi euskuben
pitxirik kutun bikañena,
euzkaldun orok gogoz matatu
biaf dogunik len-lenena.

Abenda zafak dauan gauzarik
laztan mate ta kutunena
euzkeldun seme gusti gustijon
amarik gozo zintzuena,
bijotz zaurijak osatuteko
osakirik on, bikañena,
bera-bagarik pozafen ezin
ezelan bixi letekena.

Gau ta egunez nigan dabilan
ames urdin ta eztija
bijotz-zokuan gozotasunak
softzen dauzan ixaf argija;
gure goguak argitzen dauzan
zorijoneko eguzkija
bixitz-gabeko ekaitz neke ta
naigabietan esti-gaya.

Udabafiko egun alayen
antzeko argi dirdarija,
bijotz-bafengo samin-gafatzak
osatzen dauzan osakija,
gure goguak alaitzen dauzan
eresi ta olefkija:
Orixe da ba, ta askoz geyago
Euzkadi gure abefija.

GOIRIA.

Colombia, 1934.